



**2021eko SORMEN ARTISTIKOKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO V. LEHIAKETA:**

Iruñeko Udalak "2021eko SORMEN ARTISTIKOKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO V. LEHIAKETA" deia egin du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan) xedatzen duenarekin bat.

**1.- XEDEA.-**

**2021eko SORMEN ARTISTIKOKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO V. LEHIAKETA:**

Lehiaketaren xedea sormen-jarduera sustatzea da, eta horretarako laguntza ematen zaie honako esparru hauetan garatutako sormen-proiektuei: arte eszenikoak eta performatiboak, plastikoak, musikalak, literarioak, ikus-entzunezkoak eta kulturako bestelako adierazpen artistikoak.

Laguntza hauek sormena sustatzera bideraturik daude, hori aurrez egin beharreko ezinbesteko pausoa baita kultur proiektuak gauzatzeko. Honako ikerlan-proposamen hauek izan daitezke dirulaguntzen xedea: hasierako ideia, hipotesia edo kontzeptutik abiatuta proiektu baten interesa, originaltasuna edo egokiera aztertzerako bideraturik daudenak, edo gero produktu edo prozesu artistikoa bihurtzeko proiektuek duten bideragarritasuna neurtzerako bideratutakoak.

**2.- SARI-MODALITATEAK.-**

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

10 sari banatuko dira, aurkeztutako proiektu guztiek lortutako balorazioen arabera, kontuan hartu gabe proiektua zein modalitate eta hizkuntzatan egin den.

**3.- DIRU-ZUZKIDURA.-**

Deialdi honi, gehienez ere, 30.000 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura: 50/33401/480000

Sari hauek ezarri dira modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

3.000 euroko 10 sari, proiektuen balorazioan puntuaziorik altuena lortzen duten proiektuendako, lehiaketa honen 6. klausulan adierazitakoarekin bat.

Sormen-artelanak eta proiektuen erredakzioa bai gaztelaniaz bai euskaraz egin daitezke.

Sari guztiei esleitutako diru-kopuruei dagokien atxikipena aplikatuko zaie, PFEZ dela medio.

**4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-**

Lehiaketan honako betekizun hauek betetzen dituzten PERTSONA FISIKOEK hartzen ahalko dute parte:

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaستا daitekeena





Iruñean jaioa izatea edo bertan erroldatuta egotea proiektua aurkezten den datan.

Lehiaketara taldeka aurkeztuz gero, hautagaitzak aurkezteko baldintzak bete beharko dituzte guztien artean proiektuaren parte-hartzean gutxienez % 50a duten hautagaiek.

Lehiaketa honen instrukzio-organoak ofizios egiaztatuko du hala dela.

Pertsona fisikoak banakako proiektu batekin aurkezten ahalko dira, edo talde-proiektu baten partaide gisa. Azken kasu horretan, saria taldekide guztien artean hainbanatuko da. Hala ez izatekotan, banaketaren proportzioak jakinarazi beharko dira (portzentaje guztien baturak 100 izan beharko du).

Parte-hartzaile bakoitzak sormen-proiektu bakarra aurkezten ahalko du edo proiektu bakarrean parte-hartu.

Sormen-proiektuek originalak eta argitaratu gabeak izan behar dute. Ez zaie saririk emanen aurrez amaitu, erakutsi edota banatu diren proiektuei.

Proiektuak sei modalitate hauetan banatzen dira:

Arte eszenikoak eta performatiboak: Testu dramatikoak, obra koreografikoak, performanceak zein ezohiko lekuetan egindako esku-hartzeak sortzeko edota garatzeko proiektuak.

Arte plastikoak: Marrazketa, pintura, ilustrazio, grabatu, eskultura, instalazio, argazkilaritza, horma-pintura eta hiri-artearen arloko lanak egiteko edota garatzeko proiektuak.

Musika-arteak: Edozein musika-generotako obra-konposizioak sortzeko edota garatzeko proiektuak.

Literatura-arteak: Edozein literatura-generotako lanak –ipuina, poesia, eleberria, haur-literatura edo saiakera– sortzeko edota garatzeko proiektuak.

Ikus-entzunezko arteak: Gidoiak eta sormen-proiektuak sortzeko edota garatzeko proiektuak, dokumentalak, fikzio-lanak zein animazio-lanak egiteko.

Kulturako beste zenbait adierazpen artistiko.

Parte-hartzaile bakoitzak modalitate bakar bat aukeratu beharko du bere proiektua aurkezteko, betiere aurkezten duen proposamenari hobekien lotzen zaiona hautatuz. Diziplina anitzeko proiektu baten kasuan, hari hobekien lotzen zaion modalitatea aukeratu beharko da.

Ezin izanen dira aurkeztu Udalaren beste deialdiren batean diruz lagundutako proiektuak.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak:

BAI

EZ

**5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.-**  
**AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:**

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiazta daitekeena





- SORTZAILEEN NANen FOTOKOPIA.
- DOSIER BAT, SORMEN-PROIEKTUA AZALTZEKO (Gehienez 15 orrialde).
- ARTISTEN CURRICULUM ARTISTIKOAK (Gehienez 5 orrialde).
- OBRA ARGITARATZEKO, EKOIZTEKO EDOTA JENDAURREAN ERAKUSTEKO PLANA (Gehienez 5 orrialde).

Lanak honako helbide honetara bidali behar dira:

**Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorra (Kondestablearen jauregia, Kale Nagusia 2, behe) edo erregistro osagarriak (Descalzos k. 72, 2. solairua; Iratxeko monasterioaren k. 2, behe; Armada etorbidea 2, 5. solairua; Zapatería k. 40, behe; Eslava k. 1, behe).**

Halaber, beste edozein bide erabiltzen ahalko da lanak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aurreikusten dituen artean.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina hasiko da kontatzen eta hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hortaz, eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek NAOn zein egunetan argitaratu eta hurrengo hilabeteko zenbaki bereko egunean amaituko da, salbu eta egun hori baliogabea bada, halako kasuetan, hurrengo egun baliodunean amaituko baita epea. Muga-eguneko hilean ez bada hasierako egunaren baliokiderik, epea hilaren azken egunean bukatzen dela joko da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratu ahal izanen dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak suntsitzen ahalko ditu jaso ez diren lanak, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

## **6.- EPAIMAHAIA.-**

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua:

Jorge Urdániz, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko zuzendaria.

- Epaimahaikideak:

Jokin Campián, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikaria. Javier Manzanos, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikaria. Idoia Monje, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikaria.

José Luis Mosquera, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikaria

- Idazkaria:

Gemma Casellas, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko administraria.

Epaimahaiak gehienez 20 puntuz baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak honako irizpide orokor hauekin bat:

1. Aurkeztutako proposamenaren balio artistikoa (10 puntu bitarte).  
Proposamenaren kalitate artistikoa baloratuko da, haren koherentzia eta garbitasuna proiektua gauzatzeko unean.
2. Proiektuaren originaltasuna eta izaera berritzailea (5 puntu bitarte).  
Hizkuntza artistikoen garapena eta berrikuntza baloratuko dira, bai eta horiek hedatzeko modua ere.
3. Proiektuaren inpaktua lurraldean (5 puntu bitarte).

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatu daitekeena





Proposamenak Iruñean eta bertako biztanleengan eduki dezakeen inpaktua neurtuko da, bai eta bertan garatuko diren kultura-guneetara eta -programetara egokitzeko gaitasuna ere.

Berdinketarik izanez gero, sortzaile gazteena duten proiektuak lehenetsiko dira.

Epaimahaiak baloratuko du aurkeztutako proiektuak ez direla sexu-arrazoiaik direla medio diskriminatzaileak, salbu eta sexuen arteko desberdinkeria zuzentzeko efektua bilatzen duten kasuetan.

Inongo kasutan ez dute saririk jasoko 1. atalaren balorazioan (proiektuaren interes artistiko eta kulturala) 5 puntu baino gutxiago lortu duten proiektuek.

Sariak eskuratu dituztenak ezin izanen dira berriz ere lehiaketara aurkeztu gutxienez bi urte igaro arte saria zein deialditan jaso eta hortik aitzina.

Instrukzio-organoak organo eskudunari, hau da, Kultura eta Berdintasuneko Alorreko zinegotzi ordezkariari, aurkeztuko dio sari-proposamena, horrek sari-ematearen gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera:

BAI  EZ

## **7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-**

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoekz baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria [www.pamplona.es](http://www.pamplona.es) webgunean kontsultatu ditzakezu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratu daitezke, eta hedabide ezberdinetan zabaldu.

## **8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-**

Ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da.

Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.

Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra:  BAI  EZ

Baiezkoa bada, non argitaratu:

Nafarroako Aldizkari Ofiziala.  
Iruñeko Udalaren Egoitza Elektronikoa.

Egiaztapen-kode segurua, <https://sedeelectronica.pamplona.es> helbidean egiaztatu daitekeena





Dirulaguntzen datu-base nazionalari jakinaraziko zaio, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 20. artikularekin bat.

Behin lehiaketa ebatzi eta gero irabazleei jakinaraziko zaie lehiaketaren behin-behineko ebazpen-proposamena, eta horiek onarpena bidali beharko dute hamar egun naturaleko epean jakinarazpena jasotzen dutenetik. Epe hori igarota, saria ez onartutzat joko da. Baten batek sariari uko eginez gero, hobekien baloratutako hurrengo proiektuari emanen zaio.

### **9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-**

Egile-eskubideaz bezainbatean: Lehiaketa honetan parte-hartzeak berekin dakar parte-hartzailearen zinpeko deklarazioa, non proiektuaren egile legitimoa dela baieztatuko baitu. Parte-hartzaileak adierazten du berriazko baimena duela eta beharrezko eskubide guztiak dituela obra erabili, erakutsi, publikoki egin zein egokitzeko, eta horrela bermatuko da Iruñeko Udalak kalterik ez edukitzea hirugarrenek egin ditzaketan erreklamazioen aurrean.

Irudi-eskubideaz bezainbatean: Lehiaketa honetan parte hartzeagatik, parte-hartzaileek onespina ematen dute, irabazle izanez gero, haien izena eta proiektuaren izenburua eta sinopsia hedatzeko, Iruñeko Udalak edo horrek baimendutako beste erakunde batek ezartzen duen edozein modu, leku, formatu, euskarri zein bitartekotan, zehaztugabeko denboran, eta bazter geratuko da helburu komertzialak dituen beste edozein erabilpen.

Jabetza intelektualeko eskubideez eta erreproduzio-baldintzez bezainbatean: Parte-hartzaileek Jabetza Intelektualeko eta obra erreproduzitzeko eskubideak izanen dituzte, indarreko legeekin bat.

Baldin eta proiektuaren hedapena jendaurrean egiten bada edota erakusten bada, Iruñeko Udalak emandako laguntza aipatu beharko da.

Irabazle bakoitzari 3.000 euro emanen zaizkio, kuota bakar batean, honela banatuta:

- Ordainketa bakar bat, 3.000 eurokoa, saria onartzen den unean.

Urte bukaeran memoria bat aurkeztu beharko da deialdi honen xedea den sormen-fasean egindako lanari buruz, haren garapenaren berri emanda. Horrek ez du esan nahi obra halabeharrez gauzatu edo ekoiztu behar denik.

Proiektu hautatuek laguntza eta aholkularitza jasotzen ahalko dituzte Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikarien partetik proposamena garatzeko.

Halaber, sormen-erakusketa bat egiteko aukera ezartzen da, bakarrik amaiturik dauden artelanekin, urtean edo bi urtean behin, egokien jotzen diren datetan.

### **10.- ERREKURTSOAK.-**

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar haien lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazkak oro organo emaileak ebatziko ditu.





Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

